

Sugejalearena

Igor Arroyo Leatxe

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2007



Zumaiko Udala

*enkar
txanpu*



Sugejalearena

Igor Arroyo Leatxe

Julene Azpeitia 20. ipuin lehiaketa

2007

2. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Igor Arroyo Leatxe (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

—Jan ezak bat eta ikusiko duk nola egingo diaten ihes.

Horrela esan zion Remigio zaharrak, bere ahots zaharraz, Francisco Ramirez-i. Lehenengoaren etxearen aurrealdean zeuden biak, zurezko zorudun atariko koskan eserita; artaburu erre bana zuten eskuetan eta artaburutik bertatik jaten zuten, urtxintxak bezala hortzekin arto aleak hartuz eta murtxikatuz. Gaua bare-bare erortzen ari zen herrixkaren gainera eta izarrak azaltzen hasiak ziren iluntasun eraberrituan; izarrak zeruan —milaka kriseiludun kupula beltza— eta izarrak lurrian, herrixka alderik alde zeharkatzen zuen bidean, inguruko belazeetan: ipurtargiak. Haien zirimolei so egiten zieten gizon biek.

Remigio senide zuen Franciscok —aita defuntuaren lehengusua zen—, baina hori ez da asko esatea, herrixkan denak baitziren elkarren senide; denak, duela hamar bat urte lur garaietatik heldutako familia tsotzila izan ezik. Horiek kendu eta beste biztanleek, tseltalak haiek, hiru abizen berak partekatzen zituzten, konbinazio ezberdinetan bada ere: Giron, Ramirez eta Hernandez. Familiakoa izatea ez zen, beraz, Remigiorengana joatearen arrazoa, agureak zuen jakituria eta solasaldi atsegina baizik.

Baziren lauzpabost urte Remigiok milpara joateari utzi zionetik. Urtetan zehar egindako lan gorriaren ondorioz —zenbat eta zenbat zakukada egur edo okote jaitsi ote zituen menditik bere bizkarrak, zenbat eta zenbat aldiz erein ote zuten artasoroa haren esku-besoek— txikituta zituen gorputzeko hezur eta gihar gehientsuenak. Eta hala izanagatik ere, faltan botatzen zuen artotan aritzea; hainbeste, ezen batzuetan botak jantzi, matxetea hartu eta milpara abiatzen baitzen. Alta, luze gabe hasitako lana bertan behera utzi behar izaten zuen, eta hurrengo egunetan hamakatik mugitu ezinik ordaintzen zuen egindako gehiegizko ahalegina. Gauzak horrela, semeek zaintzen zioten milpa eta berak semeen semeak zaintzen zituen trukean. Bilobez inguraturik egoten zen maiz Remigio zaharra, eta horrela ez zenean etxeko atariko koskan esertzen zen, eguna bere aurretik nola igarotzen zen ikustera: egunsentiarekin batera artasoroetara abiatzen ziren matxetedun gizonak, batzuk zaldiz, oinez gehienak; errekan arropa garbitzera zihoazen haurdun emakumeak; astean bizpahiru aldiz lurrezko errepidetik igarotzen ziren militarren junkerrak...

Noiz edo noiz baten bat etortzen zitzaion bisitan, eta guztietatik gehien Francisco. Egunero-egunero, milpatik bueltatu, matxetea eta zakua etxean

laga eta egun horretan bildutako artaburu xamurretako batzuk hartuta joaten zen Remigiorenera. Honen emazte Mariak sutan erre eta atariko koskan eserita jaten zituzten artaburuak gizonak, herrixkako nahiz munduko —alegia, herrixkatik kanpoko— gauzez mintzatzen ziren bitartean. Halaxe ari ziren ilunabar jakin horretan ere.

Francisco kexu zen goizean, artotan ari zela, suge bat azaldu zitzaiolako bat-batean sasiaren artetik; luzexka, nabarra eta erronbo itxurako buruaz, nauyaka bat zen, zalantzarik gabe. Artasoroan barra-barra hazten ziren belar tzarretako batzuk matxete kolpe batez ebakitzerakoan azaldu zitzaion narrastia. Hasieran, ziztu bizian atera zen bere ezkutalekutik, ustekabeko erasotik salbatu nahian; baina gero alto egin, Franciscori buruz bueltatu eta begira geratu zitzaion. Franciscok ere so egin zion sugeari eta horrela egon ziren biak instante batez, geldi-geldi eta elkarri begira. Sugearen burutik zer igaro zen jakitea gauza zaila da, baina pentsatzekoa da gizona erasotzeko aukera ari zela aztertzen. Gizonaren buruan, berriz, irudi eta ideien zurrumbilo nahasia: haur bat, lurrean datzan bere aitaren ondoan negarrez; egun horretan egiteke duen lan eskergea; sugearen begi beltzak; pasa den asteburuan herrixkan ezkondu diren bikoteak... Sugeak hautsi zuen betierekoa zirudien baina gehien jota bi segundoz iraun zuen tartea: Franciscori azken begirada beltza eskaini eta belarren artetik desagertu zen patxada handiz, sigi-saga, gizona erasotzea merezi ez zuela adierazi eta, modu horretan erretiratuta —gizonari buztana emanez—, bere beldur ez zela erakutsi nahiko balio bezala. Sugeak alde egin bitartean Franciscok sor eta gor jarraitu zuen, matxetea eskuin eskutik zintzilik, izerdi hotzaz blai.

Franciscori gertatutakoa ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula, izan ere, nauyaka hark berari hozka eginez gero ordu betean hilko baillizateke, pozo nahikoa bihotzera heldutakoan hain zuzen ere; baina ez zen zerbait arraroa lurralde hartan, ezta gutxiago ere. Aitzitik, milpan, bide bazterrean edo etxean bertan, nonahi agertu zitekeen nauyaka bezalako suge pozoitsuren bat. Alta, oso gutxitan suertatzen zen sugeak gizakia erasotzea, eta gizakiek ere ez zuten sugeen aurka oldartzeko inolako interesik. Batzuk nahiz besteek euren espazio propioa zuten. Baina arau honetan salbuespenak zeuden eta kontua da Franciscoren aita salbuespen horietako baten biktima izan zela. Ezbeharrak Francisco mutiko koskorra besterik ez zela gertatu zen.

Aita-semeak nagusiaren etxaldera eramaten duen bidetik doaz ttipi-ttapa, gaur haren lurretan lan egitea dagokie eta. Ilun dago oraindik, eta horregatik ezin izan dute ikusi bide bazterretik atera den tximista nabarra. Aitak garrasi egin eta eskuak ezkerreko zangora eraman ditu. Hara begiratu du mutikoak, ikaraturik, eta gero ingurura. Orduan ikusi du bidea zeharkatu eta bestaldeko landaredian sartzen ari den nauyaka handiaren itzala. Begirada aitarengana bueltatu duenerako, honek atorra du eskuetan. Zauritutako zangoaren izterren inguruan lotu du, torniketea eginez.

—Lotu iezadak gogor, ahalik eta gogorren —eskatu dio hortz artean mutikoari.

Horrela egin du mutikoak. Gizonak garrasi egin du, eta gero:

—Gogorrago!

Gogorrago lotu du semeak.

—Korri! Joan hadi nagusiaren etxaldera!

Mutikoa ez da mugitu, aitari begira geratu da, zalantza egingo balu bezala.

—Korri, mukizu hori! Eta ekarrizak laguntza!

Orduan bai, orduan mutikoaren giharrak aktibatu eta korrika batean irten da nagusiaren etxalderantz, bere ibilbidean hauts hodei fin bat altxatuz. Aita bidearen erdian geratu da, lurrian eserita, bi eskuekin ezkerreko izterrari helduz; keinu horrekin pozoilgarriaren hedapena eragotzi nahian bezala.

Mutikoak gogotik egin du korrika goiz umelean zehar —bere presaz ezaxola, eguna iratzartzen hasi da— eta ordu erdia hartu dio normalean ordu betekoa den tartea burutzea. Arnasestuka heldu da nagusiaren etxaldera eta kapatazarengatik galdetu die morroiei. Kosta egin zaio aurkitzea: ibai ertzean dago, artoa txikitzeko erabiltzen duten errotaren konponketa lanak zuzentzen; lauzpabost behargin ari dira lanean bere agindupean. Ibaiaren kristalezko hotsak inguratzen ditu errota eta gizonak.

—Jauna, nauyaka batek hozka egin dio aitari!

Kapataza mutikoari buruz bueltatu da patxada handiz; garaia eta indartsua, atorra zuriz jantzita dago. Lehenengo aldia da mutikoak horren gertu duela nagusiaren bigarrena; orain arte urrutitik, nagusiaren milpan lanean zebilela, ikusia zuen horren misteriotsua egiten zaion atorra zuri hura. Bailaran inork ez darama atorra zuririk, berehala zikinduko baillizateke lokatzaren nabarrak eta belarraren berdeaz. Baina kapatazak lohi-unerik gabe eramaten du beti berea. Orain, atorra zuri garbiaren gainetik mintzatu zaio:

—Hire aita? Eta non dago bada hire aita?

—Bidean, jauna, hemendik ordu betera oinez. Ordu erdian heldu naiz ni, korrika.

Gizonak jakin minez aztertu du mutikoa, asaldatutako begitxo horien atzean dagoena atzeman nahiko balu bezala.

—Hemengo lanak amaitu, eta gero joango gaituk hire aitaren bila.

Hori esan eta errotarantz biratu da, mutikoari bizkarra emanez. Honek gehiago ireki ditu begitxoak, harri eta zur.

—Baina jauna, hau presazkoa da! Nauyaka batek hozka egin dio!

Berriro ere mutikoarengana bueltatu eta horrela esan dio gizonak:

—Beitu, seme: hire aita hila zegok. Hona etorri eta ni bilatu bitartean kasik ordu bete igaro duk eta zaldiz joanda ere beste ordu erdi bat behar diagu haraino iristeko.

Oraingoan ahoa ireki du mutikoak. Hain da absurdua gertatzen ari dena, ezen une batez hura guztia —nauyaka, bere aita lurrian, atorra zuriko kapataza— amets gaiztoa besterik ez dela pentsatu baitu. Ibaiaren hotsak irrealtasun sentazioa areagotzen du; une batez, hots hartan patuaren barre doinuak entzutea iruditu zaio. Kapatazaren ahots tinkoak atera du sorginkeriatik:

—Eta gehiago esango diat: hire aitak hona bidali hau, hik bera nola hiltzen zuan ikusterik nahi ez zialako.

Mutikoak ez du sinetsi, ez du sinetsi nahi; negarretan eztanda egin eta ukabilez nagusia ahal duen lekuan jotzen hasi da, oihuka, garrasika, uluaka:

—Nire aita!!! Hara joan behar dugu!!! Nauyaka bat!!! Hara joan behar dugu!!!

Kapataza da oraingoan harritura dagoena, ukabil ñimiño haiekin bera kolpatzen saiatzen ari den mutil koxkorraren erreakzioarekin. Nola edo hala besoetatik heldu eta geldiaraztea lortu ostean, aurpegia haurrarenera hurbildu eta halaxe esan dio serio demonio:

—Ongi duk. Hala nahi baduk, hire aitarengana joango gaituk zaldiz, medizina hartuta.

Eta jarraian, haurraren azken mesfidantza arrastoak ezabatu nahian, errotan lanean ari den morroietako bati:

—Antonio! Hoa eta etor hadi segituan zaldi batekin!

Ukuiluetara joan eta zaldi beltz baten gainean bueltatu da Antonio delakoa. Mutikoa hara igo du beste behargin batek eta galopean atera dira biak, mutikoak korrika egindako bidea deseginez. Lodia da oraingoan zerurantz altxatzen den hauts hodeia. Igotzen hasia den eguzkiaren errainuek dir-dir egiten dute animaliairen mugimenduekin uzkurto eta zabaldu egiten den larruazal beltzean. Aita datzan lekura heldu eta berehala mutikoa zalditik salto egin eta aitaren ondoan belaunikatu da.

—Aita, hemen nago! Entzuten nauzu?

Norarik gabeko begi-niniek erantzun diote. Gainean, zopiloteak zirkuluan hegan egiten hasiak dira. Baina mutikoak ez ditu ikusi: inguruko oro oihal zuri lodi baten atzean desagertu da.

Handik aurrera gertatutakoaz ez zuen beste ezer oroitzen Franciscok.

Orotariko iritziak entzun ziren herrixkan, baina gehienen ustez erasoak Casildarekin zerikusia behar zuen. Istorio zaharra zen hura; nagusiaren aitonaren aitona zen orduko nagusia eta Casilda haren emaztea. Ospe txarra zuen Casildak nekazarien artean eta ez zen gutxiagorako. Izan ere, morroiak mespretxuz hartu eta emakumeak umiliatzea ez ezik, berarekin oheratzera behartzen zituen, mehatxuak tarteko, sasoiko zeuden gizonak. Besteak bezalako gau batean —bailaran gau guztiak antzekoak baitira— Casilda ez zen etxeratu. Inork ez zekien non egon zitekeen, alegia, desagertu egin zen. Handik egun batzuetara, ibaiko errota —Franciscoren aitaren heriotzaren egunean kapatazaren zuzendaritzapean konpontzen ari ziren errota hori bera— gelditu egin zen. Zer hondatu zen ikustera joan zirenek Casildaren gorpu urdin hanpatua topatu zuten, errotaren besoak trabatuz. Berehala osatu zuten morroiek gertatutakoaren azalpena: norbaitek, ez dago argi gizona edo emakumea izan ote zen, Casildaren ohiturak salatu zituen nagusiaren aurrean. Egia esateko, ez zen bekatu batere originala etxaldean, nagusiak modu berean jokatzen baitzuen zerbitzuko neskameekin, etxaldeko nagusi belaunaldi guztien tradizioari jarraituz; baina honek ezin zuen onartu emazteak modu berean jokatzerik, bailara osoaren aurrean irrigarri geratu nahi ez bazuen. Horregatik agindu omen zion kapatazari —oraingo kapatazaren aitonaren aitonari— hura ibaian ito araztea. Eta, esaten zutenez, Casildak nekazarien aurka mendekua hartzeko zin egin eta suge bihurtu zen. Ordutik suge hozkadaz hildakoen errua berari egozten zioten askok.

Alabaina, Remigio zaharrak ez zuen halakorik sinisten, sugeak ez baitziren izaki gaiztoak ezta mendeku zaleak ere.

—Horiek espainolek ekarritako ipuinak besterik ez dituk —esaten zuen— Hemen arranoa hegaz egiten duen kontzientzia da; eta sugea, lurrari loturik dabilen izatasuna.

Iritziak iritzi, kontua da suge batek hil zuela Vicenteren aita; eta horregatik, herrixkako biztanleak sugeen artean bizitzera ohituak bazeuden ere, berak ikararen, amorruren eta gorrotoaren arteko zerbait sentitzen zuen suge bat ikusten zuen bakoitzean. Eta hori bera sentitzen zuen ere —ikara, amorrua, gorrotoa— Remigiori goizean gertatutakoaren berri ematen zion bitartean: matxete kolpea, sugea belar tzarretatik ateratzen, bien arteko begirada itxuraz betierekoa, sugearen erretiro harroa... Ezer esan gabe entzun zion guztia Remigiok, artoa murtzikatuz, ipurtargiei so; eta amaitutakoan, halaxe mintzatu zitzaion:

—Gorrotoa ez duk inoiz lagun ona izan, Francisco —hamaika aldiz esana zion Remigiok gauza bera— Sugeak Lurraren parte dituk eta ezin duk Lurra gorrotatu.

Baina alferrik zen. Bestela agurearen esanak arreta handiz entzun eta aholkuak zintzo demonio jarraitzen bazituen ere, sugeak tartean zeudenean ez zegoen Franciscok zuen herra baretuko lukeen arrazonamendurik.

—Egun hauetako batean, ustekabeen harrapatu eta hozka egingo dit suge tzar madarikatu horietako batek. Nire aitari bezala.

Orduan esan zion Remigio zaharrak esan ziona:

—Jan ezak bat, eta ikusiko duk nola egingo diaten ihes.

—Jan, suge bat?

—Bai, suge bat —eten labur bat egin zuen Remigiok ahoan zuen artoa irensteko—. Jaten baduk, besteek sumatu eta bakea emango diate. Ekarri iezadak bat, eta neronek prestatuko diat.

Harriduraz begiratu zion Franciscok Remigiori, gai bera hizpide izan zuten beste aldietan zaharrak ez baitzion halakorik sekulan aipatu. Remigiok esan berri zuenaren egitasuna azpimarratzen zuen begirada bueltatu zion. Gero, etxaurrean zirimolaka zebiltzan ipurtargiengana joan ziren berriro begirada biak. Eta gizonak isilik geratu ziren, gaueko izakien hotsak aditzen. Izar euria ari zuen ortzimugan.

Suge bat harrapatu eta jatearen ideiak zeharo aztoratu zituen Franciscoren hurrengo egunak eta gauak. Sugeen aurrean, harraparitzat ez baina harrapakintzat ikusi zuen ordura arte bere burua, biktimatzat eta ez borrorotzat, eta inoiz ez zuen paperak aldatzeko aukera aintzat hartu. Horrela bada, lehenengo aldiz bere burua sugearen ehizan irudikatzea oso kitzikagarria zen berarentzat; baina, era berean, txikitatik erraietan sustraitutako ikarak alderik alde zeharkatzen zuen. Bi sentimendu horiek egiten zuten Franciscoren gogotik tira, orain grina, orain ikara. Azkenean, lehenak irabazi zuen tiraldia eta suge bat harrapatzen saiatzea erabaki zuen. Alta, erabakia gauzatzea ez zen horren gauza erraza: lehenenik eta behin, sasien edo arto-makilen artean narrastia topatu behar; eta bigarrenik, matxeteaz sugearen haginak baino azkarrago jokatu. Sugea jotzeko moduak ere berezia behar du izan. Kolpe azkar eta lehorra eman behar zaio lepoaldean, matxetearen atzeko parteaz;

matxetearen ahoaz jo eta burua ebakiz gero, honek —buruak, alegia— ebakiduraren inpultso berberaz salto egin, erasotzailearen gainera erori eta horzka egin baitiezaioke. Honetaz guztiaz jakitun, tentu handiz ekin zion Franciscok sugea ehizatzeke lanari.

“Dobla”ren garaia zen bailaran. Egunsentiarekin batera hasi beharreko lana zen hura, izan ere, lehenengo beroak gaueko ekaitzak utzitako urreko izara altxatu ostean, eguerdian airea bera lurruntzen baitzen eta arratsalderako ez zegoen arnasterik milpan. Horrela, artasorotan gora ekiten zioten gizonak goizean goiz, matxeteaz sastrakak kendu, eroritako artaburuak bildu eta artomakilak tolestuz. Artaburuak buruz behera uzten zuten, tolestutako makilatik zintzilik, modu horretan hurrengo asteetan lehor zedin. Gizonak heldu aurretik, artomakilek harro altxatzen zuten burua zerurantz; haiek igaro ostean, garaitutako gudaroste baten itxura urrikalgarria zuten. Lan gogorra zen, baina gizonak gogoz saiatzen ziren, orain ez zutelako aitzinean bezala beste inorentzat lan egiten, eurentzat eta euren familientzat baizik.

Baziren hamasei urte nagusiak, bere familia, atorra zuridun kapataza eta konfiantzazko gizonekin batera —Francisco txikia aitarengana eraman zuen Antonio hura kasu—, etxaldetik alde egin zuela, zapatistak armetan altxatu baino bi egun lehenago hain zuzen ere. Etxaldeko morroiek diotenez, zerbait arraroa gertatzen ari zela sumatu eta gauez atera ziren Ocosingora bidean, eskuetan eraman zitezkeen gauzak baino ez zeramatzatela, mendeetan zehar euren askaziak eragindako beldurrak bat-batean eurengan piztu izan balitz bezala. Bi egun beranduago, urte berri egunean, milaka zapatista —horien artean, herrixkako dozena bat lagun— bailaretatik jaitsi eta hainbat herri hartu zituzten, tartean Ocosingo bera. Ordurako nagusia DF bidean zen. Berarentzat lan egiten zuten nekazariak bailara tropikal haren erdian altxatzen zen victoriar itxurako etxaldea arpilatu eta ondasunak banatu zituzten. Berdina egin zuten bailarako lurrekin ere: gizon bakoitzak bere eskuekin landu zezakeen lur-saila hartu eta bere milpa propioa sortu zuen. Gero, militarrek heldu eta mendira igo behar izan zuten. Baina urte batzuetara egoera egonkortu eta lasaitasuna bueltatu zen bailarara, eta jendea etxeko lan nahiz milpetara.

Horregatik, gogoz saiatzen ziren nekazariak artasoro malkartsuetan, suzko zeruaren azpian; gogoz saiatzen ziren guztiak, Francisco izan ezik. Lan gutxi egin zuen berak egun horietan zehar, ez zen besteen milpetan enkarguz aritu eta berean zebilenean ere arreta handiagoa jartzen zuen edozein txokotik agertu zitezkeen balizko sugeengan artoan baino. Baina orain, euren bila zebilenean, bere asmoak igarri eta ezkutatu egiten zirela ematen zuen. “Orain ez dituk azalduko, narrasti anker halakoak!”, pentsatzen hasi zen, bere obsesioaren ertzetik, Francisco. Horregatik, halako batean nauyaka bat ikusi zuenean salto batez joan zen harengana, kolpetik bere beldur guztiak desagertu izan balira bezala. Matxete kolpe itzela eman zion atzeko aldeaz, eta gero beste bat eta beste bat... Lehenengo kolpeak amaitu zuen sugearen bizitzarekin, baina Franciscok ezin zion matxeteaz kolpatzeari utzi, txak, txak, txak, txak. Sugea Remigiorenera eraman zuenean, trapu zahar baten antza zuen. Eskua buruaren altueraraino altxatu zuen eta hortik zintzilik suge-trapua, haren luzera nabarmendu nahiko balu bezala. Remigiok kezka begiratu zion baina berak ez zuen nabaritu.

—Harrapatu egin duk —besterik ez zion esan.

Begietatik baietz, harro, Franciscok. Horixe baitzen barnean sentitzen zuen sentimendua, harrotasuna, eta baita mendekua hartzerakoan sentitzen den plazer krudel aitor ezina ere. Izan ere, bere espezieko bat akabatuz, aita hil zuen suge hura zigortzen ari zenaren irudipena baitzuen Franciscok. Eta gainera, sugea jandakoan, garaipena osoagoa izango zela pentsatu zuen; norbait jatea, hiltzea baino zigor handiagoa izango balitz bezala.

Bai, suge hura jan eta sugeen espeziea umiliatuko zuen.

—Esan nian bezala sugea prestatuko diat— esan zion Remigiok, sugea haren eskuetatik hartzen zuela— Baina jan ostean, ahaztu itzak betirako. Aitu? Ahaztu itzak. Haiek bakea emango diate; bakea emaiak hik ere.

Hitz horiek airean utzita, etxe barrura sartu zen sugearekin Remigio. Alderik alde ireki, urdaiak-eta atera eta etxeko suaren berotan sukaldatu zuen. Banana-hosto baten gainean atera zion Franciscori, erditik irekita bai, baina azala eta hezurdura kendu gabe; ahoarekin egin beharreko lana zen hori, jaterakoan.

Behin narrastia aurrean zeukala, nazkak hartu zuen harrotasunaren lekua Franciscoren gainean. Eta nazkaren eskutik, berriro ere, ikara. Sugea hilda zegoen, hilda zegoenez, baina suge izaten jarraitzen zuen. Remigiok behin eta berriz hori ukatu arren, oraindik arriskutsua izan zitekeela iruditzen zitzaion. Ezin zuen ideia absurduak burura etortzea eragotzi: “behin barrura sartuta, suge haragiaz egindako oreka berriro sugean bilakatu eta berpiztu egingo da”. Baina ez zegoen atzera egiterik. Hortxe zuen sugea, erditik irekita, suan erreta, geldi-geldi. Eta hortxe zegoen Remigio ere, berari begira, zerbaiten esperoan bezala, hura ere geldi-geldi. Esku bat luzatu eta sugea ukitu zuen; bero zegoen, noski, sutondotik atera berria baitzen. Sakonki arnas egin, sugea geldi jarraitzen zuela baieztatu eta bi eskuekin hartu zuen, jarraian ahora eramateko. Begiak itxi eta hozkada azkar bat eman zion narrastiaren haragiari. Murtxikatu gabe irentsi zuen kasik, bere zaporeaz eta are testuraz ohartu nahiko ez balu bezala. Baina gero sabelean suge bihurtzen zen oreka etorri zitzaion burura berriro eta pentsatu zuen hobe zela haragia ongi txikitzea, era horretan sugeak zailagoa izango zuelako bere burua berrosatzea. Bigarren hozkadan denbora gehiagoz izan zuen haragia ahoan eta orduan dastatu ahal izan zuen bere zaporea, arrainarenaren antzekoa. Eta horrela, hozkadaz hozkada, burutik hasi eta puntaraino jan egin zuen nauyaka osoa. Amaitutakoan Remigiori begiratu zion bere onspenaren bila eta honek irribarre egin zuen lehen aldiz.

—Ikusiko duk aurrerantzean nola egingo diaten ihes.

Horrela esan zion Remigiok eta horrela izan zen. Sugea jan eta lehenengoan ez, bigarrean ere ez, baina hirugarren egunean makila-suge bat azaldu zitzaion soroan. Mutur berde potoloa agertu, Francisco atzeman eta zetorren bidetik ziztu bizian alde egitea, dena bat izan zen. Franciscok irribarre egin zuen. “Arrazoi dik Remigio zaharrak” esan zuen bere golkorako “orain eurak dituk nire beldur”. Horrela zirudien: nauyaka, bibora edo makila-sugea izan, bere bidera azaltzen zen suge orok ikara batean egiten zuen ihes. Bere botere berriarekin miretsita zegoen Francisco. “Eta guztia, suge bat jan nialako”. Azken pentsamendu honen eskutik, beste hau etorri zitzaion: “Eta zergatik ez diat beste suge bat jaten?”. Bi janda, batekin baino boteretsuagoa izan zitekeen eta, hala ez balitz ere, mendekuaren plazeraz gozatuko zuen: bi aldiz kobratuko zion espeziari behin haietako batek aitari egindakoa. Ez zion

ezer aipatu Remigiori, baina aukera izan bezain laster beste suge bat harrapatu eta jatea erabaki zuen.

Bigarren aldi horretan sugedorri bat izan zen bere harrapakina. Lehenengo ehizaldiak emandako konfiantzaz eraso eta arazorik gabe akabatu zuen; hori bai, oraingoan hiruzpalau kolpe ematearekin konformatu zen. Etxera eraman eta Remigiori egiten ikusi bezala prestatu zuen sutan. Jaten hastera zihoanean, berriro nazka eta ikara sumatu zuen, baina lehenengo aldian baino era apalagoan. Areago eta gehiago, jakiaz zertxobait gozatzeko aukera izan zuen oraingoan. Arrain zaporeduna bera ere, sugedorria nauyaka baino goxoagoa iruditu zitzaion. “Eta zergatik ez dut hirugarren bat jaten?”. Halaxe galdetu zion bere buruari Franciscok, otorduaren ostean. “Bai, beste bat jango diat”. Esan eta egin: handik egun batzuetara hirugarren suge bat harrapatu eta jan egin zuen, eta gero laugarrena eta bosgarrena eta seigarrena...

Berritasun gutxiko bizimodua eta elikadura zen nekazariena; herriko bizitza artoaren inguruan antolatzen zen. Gizonak milpara joaten ziren kasik egunero, dela arto haziak ereitera, dela artasoroa sastrakaz garbitu eta arto-makilak tolestera, dela artaburuak biltzera. Emakumeak, berriz, artoa hamaika modutan prestatzen aritzen ziren egunsentia baino lehen hasi eta egun osoan zehar: tortillak, pozola, atolea, arto errea, elotezko tortak, elotezko pastela... Kasik ez zen besterik jaten herrian. Horregatik, sugea jatea zerbait berria, gozagarria, kitzikagarria bilakatu zen Franciscorentzat; areago eta kitzikagarriagoa, sugea jatearren lehenengo hura ehizatu behar baldin bazen.

Sugearen atzetik atera eta hura harrapatzea, hura garaitzea, satisfazioaz betetzen zuen zerbait zen. Bere trebezia, azkartasuna eta indarra erakusten zuen modu horretan. Eta bere buruari zerbait erakusteko behar hori, inoiz ezertan ez nabarmentzeagatik sortutako frustraziotik zetorkion. Izan ere, bera gizon apala eta gaitasun berezirik gabekoa baitzen, aita gabe eta kikilduta hazi izanaren ondorioz ziurrenik; oraindik ez zuen sikiera familia bat osatzerik lortu, jada hogeita zortzi urte izan arren.

Halere, sugeak harrapatzeko ohituraren atzean zegoen zio garrantzitsuena mendeku gosea zen ezbairik gabe. Nauyakak aitari hozka egin zion egun horretan sentitu zuen inpotentzia —korrikaldia, kapatazaren hitzak, norarik gabeko begi-niniak—, orduz geroztik berarekin batera eraman zuena, erantzi eta atzean utzi zuen. Orain, bere aita gajoa mendekatzen zuen suge ehiztari garaiezina zen. Gero eta suge gehiago jan, orduan eta garaiezinago sentitzen zen. Gero eta suge gehiago akabatu, orduan eta osoagoa zen bere mendekua.

Horrela, egun osoa narrastien atezuan ematen zuen, artasoroetan gehienetan baina baita mendi aldean ere beste hainbatetan. Baina hamar, hogeitaz, berrogeitaz suge janagatik ere, inoiz ez zuen bere mendeku gosea guztiz asetzea lortzen. Beti nahi zuen gehiago edo, hobeto esanda, beti behar zuen gehiago. Izan ere, asteak igaro ahala, sugea jateko irrika beharrean bilakatu baitzen; eta beharra, behar gorrian, behar fisikoan. Sugea jatea eskatzen zion gorputzak eta jaten ez bazuen ondoezak bereganatzen zuen. Sugerik jan gabe oheratuz gero, lo egin ezinik egoten zen; horregatik, askotan gaua ere artasoroan igarotzen zuen, modu horretan sugereri bat harrapatzeko aukera izango zuelako.

Bertan behera utzi zuen egunaren amaieran Remigiorenera hurbiltzeko ohitura. Ez zion bere buruari horrela aitortu nahi, baina Remigiori aholkuei

muzin egiteak sortzen zion kontzientzia txarraren eraginez utzi zion joateari. Ez zekien zehazki zer zen, baina funtsean jakin bazekien zerbait gaizki egiten ari zela, eta Remigiok hori jarriko zion begien aurrean.

Ekinaren ekinez, harrapari bikaina bilakatu zen. Askoz bizkorragoa eta malguagoa zen orain. Lurretik narraz eginez mugitzen zen, arto-makilen artean, eta sugea sumatzerakoan —sugea ikusi baino lehenago ere bere presentzia sumatzeko gaitasuna garatu baitzuen— mugimendu bizkor batez botatzen zen bere gainera. Hasieran matxetearekin kolpatzen zuen, baina denborarekin eskuekin lepoaldetik heldu eta hozkada batez hiltzen ikasi zuen. Era berean, sugeen kabiak aurkitzen trebatu zen, arrautzak jatearren.

Pentsa litekeen bezala, herritarrek ez zituzten begi onez ikusi Franciscoren ohitura berri eta arraro hauek. Horrela gertatu ohi da herrixketan: arrazoi batengatik edo bestearengatik normaltzat jotzen den bizimodutik desbideratzen dena mesfidantzaz hartzen da. Eta horrela begiratzen zuten gizonek Francisco, mesfidantzaz. Haurrak, berriz, izutu egiten ziren. Baina Franciscori bost axola jendearen iritzia, berak suge-ehizarako burua besterik ez zuen. Horrela, herriko jendearekiko harremanak eten zituen. Areago eta gehiago, herrira jaisteari utzi zion. Milpan bertan geratzen zen lotan, arto-makilen artean. Lehenengo eguzki-errainuekin iratzarri eta artasoroetan barneratzen zen, suge bila.

Besteak bezalako egun batean —bailaran egun guztiak antzekoak baitira—, arta-makilen artetik narraz egiten ari zela, hots arraro batzuk entzun zituen, sugearenak ez, baina beste animalia mota batenak. Badaezpada, hotsen kontrako norabidean mugitu zen sigi-saga, baina luze gabe hots berberak —arta-makilak apurtzerakoan eta sasiak zapaltzerakoan ateratzen diren hotsak— entzun zituen norabide horretan ere. Ezkerrera jo eta bat-batean plastikozko bota beltz pare batekin egin zuen topo. Ez ziren inguruko bota bakarrak; ezker-eskuin gehiago zeuden, guztiak plastikozkoak, guztiak beltzak. Begirada altxatu egin zuen eta bota paretik zango pare ateratzen zela ikusi zuen, eta zangoetatik enborra eta enborretik besoa eta besotik... besotik, matxetea. Hura ikusterakoan, tximista moduko pentsamendu batek burua argitu eta gertatzen ari zenaren kontzientzia hartu zuen; baina ordurako berandu, beranduegi zen: matxetea bere gainera erortzen ari zen jada eta beste matxete batzuk bidean ziren. Guztia ilundu aurretik, ahots bat entzun zuen:

—Sugetzar nazkagarria, hireak egin dik!